



# KORRONTZI

getxo

**KORRONTZI** taldearen folk musikaren emaria 2004ko lehen hilabeteetan hasi zen handitzen. **Mungia**ko entsegu lokalak **Agus Barandiaran** (trikia) eta **Mikel Romero** (mandolina, gitara...) musikarien soinuak ezin zituen bertan hartu, ez ziren gela hartan kabitzen. Aintzinako doinuetan babestutako Euskal Herriko folk musikari gaurkotasuna erantsi nahi zioten, baina beti trikixaren esparrua oinarri hartuta. Gipuzkoako trikiti tradizionalaren ildoak oso gustuko ditu Agusek eta, nola ez, Bizkaiko soinuak etxetik ezagutzen ditu, bere familiaren tradizioetik. Korrontzi, gehienbat, hori da. Tradizioa gaurko teknikarekin lagunduta eta bere alboan dituen beste tresna guztien batuketara. Euskal Herriko musikaren sustraietatik sortzen den taldea da Korrontzi.

Korrontzi taldearen lehen diskoa ("Korrontzi") Madrilgo Nubenegra diskoetxeak argitaratu zuen 2006an eta izugarriko kritika bikainak jaso zituen. Kritika onak eta baita sariak ere. 2006an Malagan egiten den Eurofolk Jaialdian estatuko talde hoberenari ematen zaion saria jaso zuen. 2006ko Navelgas folk talde berrien jaialdiaren irabazleak (Asturias). 2008ko abuztuaren, Malagako Eurofolk Jaialdiak inbitatu zituen eta Europako talde hoberenaren saria eskuratu zuten. Handik egun batzuetara grabatu zuten "Getxo" disko bikoitza zuzenean.

Korrontzi taldeak aprobeztatu zuen Getxo Folk Jaialdiko kontzertua (irailaren 4a) euren bigarren diskoa grabatzeko. Korrontzi taldeak Getxo Folk 2008ko ekitaldian emandako kontzertuaren arrakasta itzela eta handia izan zen. Korrontzi taldeak "Getxo"tik mundu zabalera hedatuko ditu bere folk doinuak, triki soinuak eta munduko musikak. Korrontzi taldearen bigarren diskoak "Getxo" izenburua du eta disko bikoitza izango da. Alde batetik, DVD batean Korrontzi taldearen irudiekin kontzertu osoa sartuko da. Irudiak ahalik eta ongien ateratzeko Urko Arruza argi teknikariak eskenatokiaren argitzapenaren diseinua egin zuen eta Sagar 27 bideo produktorak DVDaren grabaketa sei kamera erabiliz (bi mugikor eta garbia kamera buru bero batekin eta beste hiru kamera digital) egin zuen. Eta bestetik, cd-audioa eta diskoaren grabaketa Cesar

Ibarretxe teknikariak zuzendu zuen eta mahaian Jean Phocas teknikaria egon zen. Guztira 23 abesti izango ditu DVDak eta 16 cdak. Korrontzi taldeak egun ahantzi ezina egiteko kontzertuan parte hartuko hainbat musikari gonbidatu zituen: **Mikel Urdangarin** ahotsa "Panderotxoa" eta "Ametsak" abestietan, Galiziako **Faltriqueira** taldeak ahotsa eta panderoak "Aitxitxe mukurunduko" eta "Akelarre" abestietan, **Jorge Arribas (La Musgaña)** trikia "Xoxua" abestian, **Maya anaiak** dantzatzen dute "Laiotz" eta "Urrutxu" abestietan, **Susana Seivane** gaita "Ataungo ardi beltza" abestian, **Xavi Sarriá (Obrint Pas)** ahotsa "Akelarre" abestian.

Korrontzi taldeak Euskal Herriko folk nortasuna markatzen duen triki soinuekin munduari begiratu dio aurrez aurre lan berri honekin. Korrontzi taldeak herriko eta folk erritmoen soinu alaiak, dantzagarriak, jostalariak eta iradokitzaileak batu ditu, une bereziak, beroak eta pasionalak tartekatuz. Trikia, mandolina, alboka, gitara, baxua eta bateriaren soinuak emozioa barneratu nahi dio entzuleari eta lortu du Getxo Folk Jaialdiko kontzertuaren irudiekin. Folk eta trikiaren beste izar bat jaiotzen ari da: Korrontzi.

## Lehen diskoaren ondoren zuzeneko grabatzea ez al da azkarregi ibiltzea. Izango du bere zergatia, ezta?

Guretzat ez da denbora arrazoia izan, zuzeneko hau ez da etapa baten amaiera, etapa honen erakuslea baizik Gure zuzeneko. Euskal Herrian, zein estatuan, eta baita Europan ere eskaini dugu eta beti izan dugu oso-oso harrera ona, eta gure helburua zuzeneko hori jendeari hurbiltzea da.

## Diskoak musikari laguntzaile kopuru handia du. Horren bila joan zarete?

Hainbat izan dira lehenengo diskotik hona eman ditugun zuzenekoak, eta beti beste talde askok ino izan ohi dugu, bertan lagun asko egin ditugu eta hori nahi izan dugu isladatu diskoan, beraien ekarpenak diskora hurbildu.

## Musikaltasuna eta sonoritatea landu duzue eta horretarako ekarri folk lerroan ospetsuak diren teknikari lanak egitera Cesar Ibarretxe eta Jean Phocas.

Lehenengo momentutik gure xede nagusia kalitatea da, honetarako arlo guztiak asko zaindu ditugu, bai artistikoa zein teknikoa, eta estatuko folk munduan instituzioa diren bi teknikari hauen lana diskora ekartzea oso garrantzitsua izan.

**Agus Barandiaran:** trikitixa eta ahotsa

**Iker Lope de Bergara:** alboka, albokotea, whistleak, zeharkako flauta, panderoa, txistua, xirula eta koruak

**Ander Hurtado de Saratxo:** bateria eta kutxa

**Kike Mora:** baxua

**Alberto Rodriguez:** gitara akustikoa eta mandolina

**Mikel Romero:** gitara akustikoa, gitara klasikoa, bouzukia, mandolina eta koruak

Fitxa teknikoa

**Agus Barandiaran**ek zuzendu eta pentsatutako ekoizpena.

Konponketak eta musika zuzendaritza **Mikel Romero**.

Musika ekoizpena Korrontzi.

**Cesar Ibarretxe**ek egin du grabaketa 2008ko irailaren 3 eta 4an Areetako Geltoki Enparantzan 2008 Folk Getxo BKB Jaialdiaren barruan.

Boluetako (Bilbo) Baga-Biga estudioan 2008ko urrian nahastua.

**Jose Lastra** eta **Natxo Liberty**ek Mungia Lamiña estudioan masterizatu.

Aurreekoizpena eta audio edizioa: **Kike Mora**.

Audio ekoizpena **Cesar Ibarretxe**.

Zuzeneko teknikaria **Jean Phocas**.

Monitoreetako teknikaria **Iker Aginaga**.

Argitzapenaren diseinatzailea eta teknikaria **Urko Arruza**.

Soinu tresneria, argitzapena eta audio unitate ibiltaria **Audiomic**.

Bideo grabaketa eta edizioa: **Sagar 27**.

ritxi aizpuru (2008ko abenduaren 2)

